

berriak Triforio-tik



araba
álava



Ikuspegi berria Santa Maria Katedraletik

Santa Maria Katedrala bisitatzeko dutenek gehien atsegin dutena, bisita bakoitzean desberdina izan daitekeela da. Hori da hain zuzen ere katedralaren xarma nagusietako bat: bisitariak behin eta berriro harriritu uzteko gaitasuna. Zaharberritze lanak urteetan zehar aurreratu ahala, ezkutuan zeuden espazioak aurkitu dira, eta horiei esker ibilbide desberdinak antolatu ahal izan dira. Esate baterako, arkupean berreskuratutako polikromien ikuskizuna gehitu da ohiko ibilbidean, bai eta kriptak ere, Gasteiz hiriaren jatorria ulertzeko ezinbestekoak.

Gela-begiratoki berriak Alde Zaharra inoiz ez bezala ikus daitezke

Duela zenbait aste, dorrea bisitatzeko erabakitzen dutenak hiriaren talaira igotzen dira, arkupearen gainean dagoen gela-begiratokitik. Espazio hori Sustapen Ministerioak egindako inbertsioari esker berreskuratu da eta bertan elkarrekin bizi dira harria, egurra eta metala. Bertara heltzeko, beiraz inguratutako egurrezko pasarelatik igaro behar da, Burulleria plazara begira dagoena. Bertatik, beirate handiei esker, Alde Zaharra inoiz ez bezala ikusten dute bisitariak, eta atentzioa ematen die

ikuspegi berri horrek. Horrez gain, arkupearen ganga goitik ikus daitezke. Normalean, azpitik ikusten da.

Espazio berriak, erabilera anitzeko gela txikiak,aldi baterako erakusketak eta kultura-ekitaldi txikiak antolatzeko balioko du. Eta, garrantzitsuena, kriptatik dorrera doan ibilbidea nahi duenak egin dezake.

Lanak bukatzean, alboetako aldamiok kendu ditugu, duela urte batzuk katedralaren mendebaldeko fatxada estaltzen zutenak.





Katedralaren aterpetxeak zerbitzua ematen jarraituko du INDESArekin

Katedralaren aterpetxeak zerbitzua urtebeterako luzatu du INDESA enplegu zentro bereziaren laguntzarekin. Arabako Foru Aldundiak sortutako sozietate publiko honek kalitateko enplegu egonkorra ematen die desgaitasunak dituzten pertsonei, eta lan-munduan eta gizartean pertsona horien integrazioa erdiesteko eredia da. Katedralako aterpetxean, garbiketa-lanaz, garbitegi zerbitzuaz eta catering zerbitzuaz arduratzen dira, halakoak behar direnean.

Konferentzia zikloa



'Europako kultura eta oinarriak'

Maiatzaren 16an, 19:30ean

'Arkitektura eta Europan izan duen eragina', Juan Carlos Prietoren eskutik, arkitektoa eta Santa María la Real fundazioko zuzendaria

Micaela Portilla aretoa (Europa Biltzar Jauregia)

Sarrera doakoa izango da, aretoa bete arte

Gure ondarea

Gogoan den irudia: Esklabotzaren Ama Birjina

Gotiko garaiko Andra Mari ezaguna hainbat mendez egon zen Vitoria-Gasteizko Santa Maria Katedralako aldare nagusian. Zur polikromatuz eginda dago eta Maria irudikatzen du, erregina gisa tronuratuta eta koroatuta, Haurra altzoan duela eta Ebanjelioen liburua bedeinkatu eta eusten duela. Kronologiari dagokionez, eztabaida dago, baina autore gehienek XIII. mendearen azken laurdenaren hasieran kokatzen dute, Alfontso X.a Jakintsuak, Gaztelako erregeak, 1276 eta 1277 artean Arabako hiribilduan egin zuen egonaldia zela-eta. Erregeak Ama Birjinaren mirari bati esker gairitu zuen gaixotasun bat eta uste da hiriarri irudi hau oparitu ziola, gertaera hori eskertu nahian. Garai hartan bitxi eta apaingarri ugari izan zituen, jainkozaleek ekarriak, eta kofradiak zaintzen zituen. Prozesioetan atera ohi zen Corpus egunean, eta hirian zehar eramaten zuten. Erretaula errenazentista nagusiaren irudi nagusia izateari utzi zionean, 1805. urtean ordezkatu ondoren, Esklabotzaren Ama Birjinaren kaperan jarri zen, eta handik beste hainbat lekutan egon zen. Azkenean, Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museora eraman zen, eta handik itzuli zen duela gutxi katedralera, egun duen kokalekura.

Fernando R. Bartolomé García (UPV/EHU)

